



KORONABIRUSEN INGURUAN HARTUTAKO PREBENTZIO-NEURRIAK

Durangoko Merinaldeko Amankomunazgoak, koronabirusak eragindako alerta-egoera dela-eta, hainbat prebentzio-neurri hartu ditugu gure zerbitzuen inguruan:

- Kirol-instalazioak ixtea (Atletismo Pista, Belodromoa eta Trinketea).
- Adinekoen dinamizazio, Behargintza eta Adikzioen Prebentzio Zerbitzuko talde-jarduerak etetea.
- Telefono eta posta elektroniko bidezko banakako arreta Gizarte Zerbitzuetan, KIUBetan, Behargintzan eta Adikzioen Prebentzioan. Larrialdiko kasuren bat atzemanaz gero, aurrez aurreko hitzordua emango da.
- Durangoko Merindadeko Mankomunitateko instalazioak garbitzeko lanak areagotzea
- Osakidetzako osasun- eta higiene-gomendioak bidaltzea langile guztiei, eta gomendio horiek bulego guztietan argitaratzea.
- Bihartik aurrera, 10 pertsona baino gehiagoko bilerarik ez egitea gomendatzen da.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak eskolak ixteko erabakia hartu duenez, gure langileen kontziliaziorako erraztasunak emango dira beharrezko kasuetan, kasu bakoitza banan banan aztertuta.

Prebentzio-neurri horiek salbuespenezko neurriak dira, eta osasun-agintarien gomendioei jarraituz hartu dira, eta berriro abisatu arte mantenduko dira, kutsatzeak saihesteko eta COVID-19ren hedapena eragozteko dinamikan laguntzeko.

Azkenik, egoera delikatu honetan, guztiok batera lan egiteko deia egin nahi dogu, eta Osakidetzaren gomendioekin bat egiteko eskatu:

- **Eskuen garbiketa zorroztea**, eta are gehiago arnas eta barre sintomak dituztenek. Ez dugu ahaztu behar kutsatzeen % 95 pertsonak sintomak dituenean gertatzen direla.
- **Gainazalak garbitzea.**



Durango Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

- **Eztul egitean, estali ukondoarekin** edo erabili eta botatzeko zapi batekin
- **Sintomak** (sukarra, arnasketa-sintomak) dituzten pertsonak ez dute kontaktuan egon behar adinekoekin edo gaixotasun kronikoak dituztenekin, ezta ere leku publiko eta jendetsuetan.